

GAZTE - NAIZ

Europa'ren etorkizunari buruz

Frantziako elekiok dirala medio, itz asko egin da berriro ere etorkizuneko Europa alkartuari buruz. Europa alkartuaren asunto hau bakoitzak bere modura konprenditzen duala uste dut. Eta modu guztiak ez dira onak.

Europeoek, bizi geran mende eta garaiean, aukeratu beharra iritzi zaigu horaintxe. Gaurko munduak, zuzentzeko, erabaki radikalak behar ditu, eta Europa'k ezin dezake emendatzen aurrerabaki hori gela atzeratu. Postura batean edo bestean, eskubira edo ezkererara, Europa zahar honek konpromiso bat aritu behar du milerari—pean bizi diran mundu zabaleko lurralde ta nazioen liberazioaren alde. Orrela ba, etorkizuneko Europa alkartuaren idea honek garrantzi handia dauka, eta aztertu bearra dago.

Europa alkartua aitatzen degunean, alkarketa hori zer finalitatekin egin behar den galdetu beharra dago. Batzuen iritzi, Europa alkartuak ez du komunismoaren kontrako dike segurua bat baizik izan behar. Orrela ba, iritzi hori dutenezat Europa Berlin'en asten da, eta munduak, Oriente ta Okzidenten aldira ezin holetan erditbitua jarraitu behar du. Ipar - amerikak Okzidenteko sallean sarturik, jakia.

Beste batzuetat —nere uestez De Gaulle emen dago—, Europa'k ez du ez eskubira ta ez ezkerera jo behar; ez du inoren morroi, edo, gutxienez, inoren adiskide izan behar ez sozialismoko nazioen adiskide, ez E.E. U.U.'ren imperialismoaren adiskide. Europa'k Europa izan behar du, esango genuke irugarren potentzi bat, bere ekonomia ta armen indarrarekin, ez inoren serbitzari, ez inoren morroi; aske eta libre, Postura hau erabat ondo dago. Baiña ez gutxi. Izan ere, De Gaulle'n Europa oso Europa libre eta haundia da. Baiña zertarako? Zertarako azkatasun eta haunditasun hori? Galduta hortan dago asuntu honen kaka. Eta orain artean ez du inork, nik dakidanez, erantzun garbirik eman nahi izandu.

Badira Europa'ren haunditasuna, bere hortan, beste finalitaderik gabe maite dutenak. Eta hau beste "partitismo" klase bat besterik ez da. Edo ta, hobeto esateko, "kontinentalismo" bat. Gaur egunean, eta politika arazoetan batez ere, gerokeieria ez du batera baliu, ez du inungo edertasunik. Gerokeieria baztertera-tu beharra dago, eta emendatzen aurrerako gure erabakiak lagun — inoren premiari begira aritu beharra. Eta beldur naiz Europa'k berriro ere berekoi eta dollorki ez ote duen jokatu nah.

Europa'ren historia, askok bestela uste badute ere, historia ilun eta trixtea da. Europa'k ez baidu bere jokatibidea sekulan ere beste lurralde ta kontinente'tako nezesidiari begira moldatu. Bi gerra ikaragarri izan ditugu Europa'n, bizi geran mende. Gure arteko gerrak Europa pozoituaren señaleari negargarriak. Eta ez dirudi gaur eguneko politikaren señaleari oso alaiagarriak diranik. Orain berriro idatzi du Mikel Lasak, asteroko honetan, gutzi artikulu prestu bat, "Führer'en zakurra" izenarekin. Lasak ondo dion bezala, Alemaniak ez du kollare aldatu besterik egin, eta gaurko alemanen mentalitatea gerra aurreko mentalitatearen antzekoa da, gutxi gora - behera. Eta, nere uestez, gaurerako Europa'ren ere berdin. Hau ondo dakite Heinrich Boll eta Gunter Graas eskritoreak.

Merkatu Batuak ere ez dirudi Europa'ren alkatasunerako ezer egin duanik. Eta egin badu ere, ez da alkatasun klase hori Europa'ri komeni zaiona.

Beste aldetik, De Gaulle zahararen txilibitoak oso doña berezi bat jo du azken urte hauetan. Gizon arrigarria De Gaulle hau, Orgullosoa omen da, eta neri orgullosoak etzaizkit gustatzen, politika kontuetan batez ere. Baiña, zalantzik gabe, arrigarria da, bai, gizon honen jokaera, eta ez dakit horaindik, nola jutsa. Amerikanoak jo ditu, Otan'en batzarretatik urrun egondu da, Merkatu Batua boikoteatu du eta, atzenik, Txina'rekin relazio legunak tramatu ditu. Baiña jokabide hau frantzeserik etzaie gustatu. Frantzesak seguru daukela dirudi Otan eta Merkatu - Batua'ren edertasunetaz. Ni ez nitake horren seguru egongo. Kapitalismoa itxusi baten beharrik ikusten ditut instituzio hoi barruan. Eta kapitalismoaren bidefik ez dago eskuzabaltasunik, ez dago subdesarrollaren bizi diran nazioentzako laguntza jatorri. Europa ta Ipar - Amerika'ko kapitalismoak nazio subdesarrollatuak beste kapitalismo jalo be-riak indartzen ditu, ez herriaren premiak erremediatu.

Europa'k, jatorri jokatze, Afrika, Asia eta Ego - Amerika'ko sozialismoeri here laguntza eskini behar die. Gobernu sozialistak defenditu behar ditu, eta gobernu hoi programak aurrera eramateko, nazio hoi artean partitu behar ditu kredituak eta teknika aldeko laguntzak. Europa'k ez du, beraz, komunismoaren aurkako dike bat eta askoz gutxiarorik ere izan behar. Hori ipar - amerikatarri asko komeniko itzajoteke, bai, ia Afrika, Asia eta Ego - Amerika'n goseak bizi diran jendeiri batera ez. Europa'ren etorkizuna munduko nazio askoren gose eta pobrezia horiek erremediatzean dago. Eta xeregin ortan saltzan diran nazio sozialistekin alkatzean ere bai. Europa'k, neretzat, jatorrizkoa izateko, Gibraltar'etik Siberia'ra izan behar du. Bestela ez da Europa; bestela, Ipar - amerikatar kapitalismoaren isats bat besterik ez da. Eta Iparamerikako kapitalismoak ez dauka, gaur - gaurkoz, batera itzura onak.

Europa'tarrerari oraintxe iritzi zaigu mendeen buruan Afrika ta Asia'n egin ditugun lapurretak eskuzabalkiro ordaintzeko garaia. Eta okasio hau alperrik galduko ote

ASTETIK ASTERA

Egun hauetan ematen dira Nobel-Sariak Stokolmo'n. Jakintsuak gero eta urrunago ari dira joaten beren jakintza-sailletan, eta guk geuk ere gero eta gutxiago ulertzea ez da batera harritzekoa.

Hori dala-ta, Lwoff, Jacob eta Monod'en Sendakintza-Sariak ez digu gauza haundirik bururatzen; ez baitakigu ia fitsek beren lanez Tamala dal

Saria dala bide, halere, zenbait aldizkarik beren berri eman dute. Eta «Le Monde»-k oso berriki Monod eta Jacob'en iritzi batzuk argitaratu ditu; eta hauek izan dira guretzako irakurgarriak; zientziari buruzko beren aurkideez iritzi bat emateko, eta ulertzeko ere, gauza ez geraldako.

Stokolmo'ko Akademia'k, dana dala, epe labur batean bigarren aldiz, nukleo-garrakien ondoko azterketak saritu ditu. Berriz ere, beraz, irakasle hauek izenak eta ADN eta ARN famatu horiek alkarri josiak ikusi ditugu. Gizonaren katea, beraz, nukleo-garrak horien mailan datzala esan ditek. Biokimika da gailen; eta gizonaren katea zelulen kakaon datzan ezker, biokimikan datzala ageri da.

Jacob irakaslearen hitzek garbi adierazi dute: «Zentzuz itxaron ditek gaur, egunen batean izadiaren bi mirarien joko xehea ulertuko dugula: hau da, arrazno batetik gizona nola ote ditek; eta nola ere sor gizonaren oharrezko pentsamena».

Mirariak eta harrigarri-iturriak ez dira agortu, nere uestez. Zelulen ta bakterien gorra-beherak, halere, zientziaren bidean sartu dira arras; eta biokimikak agintzen duela nabarmen bide dago. Jakintsuek diotenez elektronikazko makina eta zelulak anai bizikiak dira: «Zelulen barne-gobernu» zibernetikazko mekanika huts bat da. Biziuduen eta makinien zibernetika-sistemen artean ez dago liferentziarik batera» (Monod).

Nola sortu dira horrelakoak naturalezan? Zientzia-gizonen dagokienez, Nobel-Sari hauek ez dute probatu eziezkerik deus ontzat eman nahi; eta garbi diote: aldakuntza horiek itxu-itsuan, itsumustuan, ustekabeen, zoriak ala egokirik, gertatu dira. Eta gero, egoki ez ziran aldakuntzak, denborak berak baztertu ditu urteetan barrena. Ideia hau zaharra izanik ere, ez bide dugu oraindik gutzi sinistuta nahi; baiña biologian gauza segura dala dirudi.

Egia ahal da ordea gero Monod'ek esaten duena? Monod'en uestez naturalezak edo izadiak ez du aurrerapenik egiten. «Hoberako joera eta eboluzioa alkarri lotuak dirala pentsatzea oker bat da... Osootasunari gogokiola, bakteriarigidun gizonagana ez dago liferentziarik: danak dira bizi berberaren adarrak, danako dira beren biziari egokituak, ez besterik».

Ez dakit nik hori egia dan. Biologiaren aldetik ezin iritziarik eman, noski. Baiña ba dirudi, berez, gizona barea baiño osoago eta bikiago dala.

Besterik ere, ba dirudi maila guzietan gertatu dala hoberako joera bat. Gizonaren teknikan, esate baterako, nola uka aurrerapen bat himitzen dank! Horra hor Sendakintza bera: nola uka Hippocrates' engandik gaurokengana aurrerapen bat gertatu dank! Matematikan, Teknikan, edozertan aurrerapen bat ikusten dugu.

Izadiaren ere ba dirudi gauza bera gertatu dala. Eboluzioa ez da itsumustuan gertatu; hobe esateko, nola-nahi sortu eta hasi arren, sendotu eta iraundu gero batean barrena gertatu dala dirudi. Aldakuntzak ustekabeen eta itsuan gertaturik ere, hoberako joera bat dagoala dirudi. Dana subjektibismoa dala ezin ditek esan, nere uestez.

Miraria atzeratu egiten da, baiñan ez suntsitu. Ipuiak disein egiten dira. Hobe Munduaren ulertu ezina sakonago eta gardenago egiten da. Txalotu egin behar, beraz.

GOIHENETXE

MIREN OLARREAGA

Bestelakoak zera?

Gabon, Urteazar, Urteberri, alaitasuneko egunak omen dira, alde guzietatik zorionak eskeintzen dizkigute; ni ordea ezin alaitu, ba da zerbat nere barrenean, poza ez ezik samintasuna sortzen duana.

Urtea ezin dut alai bukatu, nere ingurura begiratu ta pekatu egingo nukela iruditzen zait. Par egiteko ez dut ausardirik.

Urtea bitarte bizitzaren zurrinbillean sarturik ikusi ez ditudam, gauzak datorzit burura. Zenbat amets, zenbat lan ez genitun egin bear urte onetan, eta zer egin dut, deusik ez! garrantza da pentsatzea urte berria ekitean, gauz berak egingo ditudala aginduko diodala nere buruari, berri ere berdin.

Ez dut itzatearen aurka joan nai ta onartzen dut urtearen asi eta amaitei bear ori. Ze arazoi dut ordea alaitzeko? Norbaitek esango dit kristaua naden aldetik, Iman'o'en jaitzak poztu bear nindukela, baiña ez, onek ere ez nau alaitzen, jakin bai dakit berriz akabatuko dugula.

degun beldur naiz. Füh'eren zakurra somatzen det horaindik zaungaka Europa'ko kaleetan. Eta hori ez da batera señaleari ona.

Orrela ba, ez galtezen Europa alkatuaren irudierekin gelegi ilusionatu, eta aztertu ditzagun bein eta berriro alkatasun honek konplutu behar ditun kondizioak. Garai hauetan beste estrapuzi bat bein - betikoa izan liteke.

J. LETE

Gastediaren ostaticak

1097'garren urte Inguruan, Richard Schirrmann zeozor egitea erabaki zuen, Nola edo ala, Buhr aldeko izeneko doixtar maixu gazte batek, bere ikaskeri buruz oletan zegoen giro gaitzetik atera nai zituen gazteak. Baretetik bestera joaz, inguratu zuen azkenean gaztelu zahar bat. Bereala gaztelu au txukundu ta gazteentzako atsedean eta bitloki bezela jarri zuen. Au izan zen gastediaren ostaticuen oñarria.

Gaur egun, Schirrmann'en gaztelu zahar ura bakarrik ez, baiña milla ta zortzireun ostaticu, irurogi ta bi nazioetan zabaldutak dagoz.

Lenengoz, sorreran, ostaticu auek ikasentzat bakarrik ziren. Orain, langilleak eta berdin nekazarriak ere bertan sarrera ba dute. Are geiago, 1932'gn, erabaki au artu zuen, Amsterdam'en, biltzar batean: «Ostaticu aue-tara datozeren artean ez abenda, ez erlijio, ez kolore ta klaseri buruz ere ez da inolako bereitasunik egingo».

1936'gn, ostaticu guzietan nazio-arteko Federazio bat eratu zen. Orditik Asia ta Afrika'ko lurraldetan ere makiña bat ostaticu zabaldur da. Ostaticu aue-tara datozen gazteak geroz eta geiago direla berriz dato auek azaltzen digute: 1963'gn 1.609.174 gazte; 1964'gn 1.669.744.

Lerro auek, gastedi-ostaticuak duten hixtori zati bat azaldu digute. Baiñan zer dira egiz ostaticu auek?

Lenengoz, «hotel» merketik ez dute ezer. Ez ditugu era orretan artu bear beintzat. Edozein errialde ta idele-tako gazteen bitloki, etxeak bezela baizik.

Ostaticu bakoitzean, bertako zuzendaritza ta serio-tasunaren responsable egiten den «aita ostaticularia» del-tzen zaiou mutil bat dago. Berta joaten dan gaste bakoitzak oia, ta janaria prestatzeko sukaldea arkituko ditu ta ez garesti.

Ostaticu txukunketa ta garbitasuna ez dagoz mo-riño edo neskaue batuzen gain; aruntza doan gazte bakoitzaren eskuetan baizik.

Gure artean oso gutxi ezagutzen ditugu gastediaren-ostaticuak. Ta au benetan tamalgarria dela diot. Alderdi-txararren bat baldin ba dute ere, alderdi onak erruz ditutela ikuste ta dala zaila.

Mundu guziko gazteak alkar ezagutzea, denboraldi batean, naiz laburra izan, alkarrekin bizi izatea, itzak eta iritziak trukatzeta, ez al da zoragarria? Ni beintzat iritzi orretakoa naiz.

Illuntze batean, beltzak eta zuriak, ingelesak eta eskuak, adixkidetasuneko giro batean, ez ote ederra?

Urtearen azkena eldu ta uztarik jasotzen ez baldin bada, bi gauz gerta ditezke ez dala oraindik garaia, er-netzen ari dalako, edo ta erein ez danez ez dagoela jasotzerik.

Bigarren onek bildurtzen nau, Ederra izango litzake urtearen bukaera onetan landarea ernetzen ikusteak ematen duan poza sumatzea; baiña ez, ez aruten eta ez datorren urtean ez dut uzta jasotzerik izango, ez bai dut eroin.

Urtea joan eta urtea etorri ezin berdin jarraitu, oker au zuzendu bearra dago, nai ta natezkoa da. Alaitasuna, par egin dezakegun eguna, guri ere iritzi bear zaigu. Ori lortzeko ordea zerbat egin bearra ba dagoela garbi ikusten da, nauka da atzera begiraldi bat egitea, orain artean urte baten ondoren bestea nola amaitu dan ikusteko.

Egun auek ain zuzen, ba dute zerbat sendiko epeltasuna-nera elkartzen gaituzena. Denori, gutxi edo geiago etxeko irudia bururatzen zaigu, desberdintasun txiki batekin, batzuek alkatu al izango dirala ta beste batzuek ez.

An eta emen, entzun eta irakurri al izango dugu: «Aintza Januari zeruan, eta pakea lurtean, borondate oneko gizoneri».

Uzta jaso al izateko erein lanetan, etxetik urrun arkitutzen diran gizon oiek, pakea merezi dute, borondate oneko gizonak dira, baiñan beren egoera, ez da batera alia.

Eta ni nolaz alaitu nindeke?

BEOBIDE